

Errugbia

Getxo Arteak 30-12 galdu zuen Liceo Francesen kontra

■ *Madridarrak 24-7 ziren atsedenean lau entsegu eginda*

K.A. / Donostia

ESPERO ez zen porrota jaso zuen atzo Getxo Arteak Madrilen, Liceo Frances ez baita bizkaitarrak baino gehiago. Atzo, ordea, madrildarrek joko hobea egin zuten hiru laurdenetako lerroarekin, eta lehen zatian lau entsegu egin zituzten, gainerako puntuak jaurtiketetan lortu zituzten. Getxotarrak bi entsegu egin zituzten, Dani Rodriguezek eta Aguadok, eta Garikoitz Gallastegik transformaketa bat gauzatu zuen. Dulcioraren kontra bezalako hasiera izan zuten getxotarrak, hamar minututan bi entsegu egin baitzizkion Liceok. Hori gutxi balitz bezala, epaileak bi jokalarik egotzi zituen hamar minuturako eta egoera okerragotu egin zitzaizen bizkaitarrei. Egia esan, ez ziren batere kontent bizkaitarrak epailearen lanarekin.

Pentsatzen zen aukera aproposa zutela getxotarrak etxetik kanpoko bigarren garaipena lortzeko, baina bistan da atzokoa ez zela egun oparoa izan bizkaitarrentzat. Kontuan hartu behar da, hala ere, Cesar Hernandez eta Mikel Rodriguez baja izan zirela azken unean. Beraz, Liceok ordainekoa eman zion Getxori, joanekoan arauzko denboratik kanpo galdu baitzuen Faturan.

Canoeak, bestalde, 13-24 irabazi zion El Monte Cenciassi, 0-13 heldu ondoren atsedenera. X

Bath Europako txapeldun

Ingelesek 18-19 irabazi zioten Briveri hondarreko minutuan

BRIVE	18
BATH	19

Brive: Casadei-Travers-Crespy (Laperne, 51m.), Alegret-Manhes, Van der Linden-Duboisset (Sonnes, 70m.)-Magne, Carbonneau-Arbizu, S. Carrat (Viars, 77m.), Venditti, Lamaison, J. Carrat, Penaud.

Bath: Hilton-Regan (Mendez, 78m.)-Ubogu, Redman-Haag, Thomas (Earnshaw, 70m.)-Lyle-Webster, Nicol-Catt, Adebayo, Guscott, De Glanville, Evans, Callard.

PUNTUAK: Bathek entsegu bat: Callard (58m.). Transformaketa bat: Callard. Lau zigor kolpe: Callard (19, 33, 67 eta 80m.).

Brivek bost zigor kolpe: Lamaison (3, 10, 18, 31 eta 40 m.). Drop bat: Penaud (65m.).

EPAILEA: Fleming irlandarra.

Koldo Alduntzin / Donostia

ANDY NICOLEK, Bath taldeko kapitain eskoziarrak, jaso zuen atzo Bordelen Europako III. Kopa 36.000 ikusleren aitzinean. Ingelesek, historiara pasatuko den finalean, 18-19 irabazi zioten atzo arte Europako txapelduna zen Frantziako Briveri. Atsedenera 15-6 heldu ziren aitzinetik frantziarrak, baina bigarren zatian fisikoki hobeto aritu ziren ingelesak, eta entsegu bat egin ondoren zatiaren erdialdean, norgehiagoka bereganatzea lortu zuten.

Amaierako hamar minutuak ikusgarriak izan ziren. Brive aitzinetik zen, 18-16, eta Lamaison Baionako jokalarik ohialdiko zigor



Bath-eko jokalaririk, atzoko garaipena ospatzen.

FABIAN COTTERAU / EPA

kolpe jaurtiketa erraza huts egin zuen. Handik lau minutura jarri zen Bath lehen aldikotz aitzinetik, 18-19. Adebayo hegala erasoan ari zen, ostikadatxoa eman ezker hegalean eta Van der Lindenek bultza egin zion baloirik gabe. Zigor kolpea Callard gibeledo internazionalak gauzatu eta 18-19 aitzineratu ziren.

Minutu bat besterik ez zen geratzen amaitzeko, eta Brivek erasora jo zuen. Uztartze-laxoan ari zirela, ingelesek beheratu egin zuten eta Lamaisonek ez zuten zigor kolpea

gauzaterik izan. Hala ere, epaileak uztartze bildua agindu zuen, nonbait, baloia aitzinera erori zitzaion jokalarik ingeles bati. Uztartzea irabazi, Carbonneau Arbizu argentinarrari baloia luzatu, eta punpa lasterrez hagen aitzinean drop-a gauzatea erraza zirudienean, huts egin zuen ingelesen pozerako.

Brivek puntu guztiak jaurtiketetan egin zituzten. Lehen zatian gehiago izan zuen baloia eskutan Brivek. Ingelesek, ordea, ondo asmatu zuten defentsan. Eskasetan parean aritu ziren. Bigarren zatiaren hastapenean frantziarrak aritu ziren entsegu esparrutik hurbil, baina 18, minutuan Guscott bizi-bizi sartu zen eta entsegu lerrotik hurbil, zigor kolpea adierazi zuen epaileak. Nicolek uztartze bildua eskatu zuen, Lyle amerikarra baloiarekin irten, Nicoli eman, hark Guscotti eta azkenean Callardek entsegu. Jarraian, Penaudek eta Callardek berak zigor kolpe bana gauzatu zuten hiru minututan. Partida azaldu bezala amaitu zen.

Bestalde, Konferentzia Kopako finala jokatu du Frantziako Agenek eta Colomiersek Tolosan (Fr. Canal Plus, 15:15). Bourgoin da txapelduna. X

Eskubaloia

Bidasoak itxura ona eman zuen Artelekun, eta Pilotes Posadari irabazi egin zion

■ *Irundarrak 29-20 gailendu zitzaizkien galiziarrei, Barreto protagonista izan zen partiduan*

BIDASOA	29
PILOTES	20

Bidasoa: Barreto, David Rodriguez, Olalla, Vico, Etxaburu, Josemi, Storgard, Aginagalde, Maglajlija, Vargas, Jorge Cortes.

Pilotes: Kurtovic, Nesterov, Jimenez, Lvov, Julio Muñoz, Rodriguez, Valenzuela; Milucho, Jacobsen.

PARTZIALAK: 3-1, 4-4, 5-5, 7-7, 10-8, 12-11; 16-13, 18-14, 20-15, 23-18, 26-18, 29-20.

EPAILEA: Breto, Hüelin. Kanporaketak: David Rodriguez, Jorge Cortes, Etxaburu, Jimenez.

Erredakzioa / Donostia

PIXKANAKA konfiantza hartzen ari dira Ivan Sopalovicen gizonak. Artelekun atzera zorte ona itzuli zaie irundarrei eta pixkanaka baita lasaitasuna ere. Lesioek dezente murriztu dute Bidasoaren erasorako ahalmena, baina atzo ongien defentsan ibili baziren ere, galiziarren atera iristea lortu zuten. Bidasoaren garaipenean zirikusi handia izan zuen Barreto atezainaren geldiketek.

Lehen zatia nahiko berdindua joan zen markagailuan, eta azken minutuetan irundarrek aldentzen hasi ziren. Markagailua 12-11 zegoela joan ziren aldageletara, baina alde hori laukoa izan zitekeen, Jorge Cortesen kanporaketa bat baliatuz, galiziarrek 3-0eko partzial bat lortu ez balute.

Bigarren zatian Pilotesek David eta Olallaren gaineko bikoitze mistoa ezarri zuen, eta Bidasoak pibotea bilatzeari ekin zion. Defentsan gogor aritu ziren irundarrak bigarren zatian; Barretoren geldiketek eta erasoan fin ibiltzeak egin zuten beste guztia, eta 29-20 amaitu zuten.

Garrantzitsua da alde hori, joaneko partiduan Bidasoan bost tantorengatik galdu baitzuten; orain *average*-a alde dute irundarrek.

Jardunaldiko beste emaitzak: Morrazo, 31; Oviedo, 22; Chapela, 29; Ciudad Real 31; Cadagua, 34; Caja Cantabria, 32; Ademar, 35; Altea, 25. X

Etxetik kanpo irabazteko aukera bakarrenetakoa

■ *Miarritzek entsegu gutxien egin duen Arroxela bisitatuko du, etxetik at jarraian duen hirugarren partiduan*

K.A. / Donostia

COLOMIERSEN eta Tolosan jarraian galduta, Miarritzek Arroxelaren kontra jokatu du itzuliko bigarren partida (15:00). Arroxela entsegu (9) eta transformaketa (6) gutxien egin duen taldea da. Saiklapeneko azken postuan da 14 punturekin, Nizarekin batera, bi partida irabazi dituelarik soilik. Miarritzek sei puntu gehaigo ditu, eta bi partida gehiurketa galdu ditu. Etxean hiru entsegu irabazi ditu, eta kanpoan ez du bat bakarera ere irabazi.

Bidabek eta Sebastien Bonetti leku bat lortu dute gibeledo lerroan eta tinko ari dira. Bonetti erdian finkatu da, batez ere NARBONARI entsegu bat egin zionetik. Bergeracen sortu zen orain dela 20 urte. Honela mintzatu zitzaizkan asteazkeneko entrenamen-

duan, saiklapen fasea amaitzeko geratzen diren zortzi jardunaldiez: «Uste dut gure jokoari eusten badiogu ez dugula arazorik izango aitzinera egiteko xapelgoan». Etxetik kanpo irabazteko Arroxela, gaurko kontrarioa, eta Montferrand ditu proposenak Miarritzek. Arroxelaren aurka 20-9 irabazi zuten lapurtarrek joanekoan. Kosta egin zitzaion Miarritzeri Arroxela mendean hartzea, eta atsedenera 10-6 heldu ondoren, partida amaitzeko oren laurdena geratzen zela 13-9 hurbildu zen Arroxela izugarriko presioa eginda.

Kontrarioaz zera dio: «Colomiersek puntu batez irabazi zion soilik joan den igandean, 9-10. Beraz, bistan da garaipena gaitza izango dela. Nolanahi ere, Colomiers eta Tolosa bisitatu aitzinetik, etxetik kanpo irabazteko

aukera egokiena izan zitekeela pentsatzen genuen, eta hala pentsatzen jarraitzen dugu. Arroxelari irabazteko, Brive eta Narbonaren kontra jardun genuen bezala jardun beharko dugu. Aitzinean sendo, batez ere hirugarren lerroarekin eta baloiak lortuta, atzean gozatzeko aukera izango dugu».

Baionak Tyrosse bihurriaren kontra du erronka • Landetako Tyrosse hartuko du gaur Baionak (15:00). Joanekoan 27-14 irabazi zion Baionari. Jokaturiko hamar partidetatik sei irabazi ditu eta lau galdu. Horrenbestez, Baionari lau puntuko aldea kentzen dio saiklapenean, hirugarren postuan dago. Lapurtarrek 20-33 galdu zuten Valenceren kontra igandean, eta ezinbestekoa dute gaur irabaztea. Baloi

gutxi izan zuten jokatzeko, eta horixe da Tyrosseren kontra konpondu beharreko lehen gauza.

Konfiantza berreskuratu eta elkarri atxiki beharko diote baionese; hala zion Nicolas Sein uztartze erdiak. «Tyrossek ez du jokorik egiten, baina borrokalarriak dira eta joko zabaltzaile aparta dute, Pallas. Guk agresibitatez jokatu beharko dugu».

B multzoan, Garazik lau puntura duen Bagneres bisitatuko du lidergoari eusteko asmotan. Joanekoan 26-25 gailendu ziren garaztarrak hondarreko jokaldian. Donibane-Lohizunek Lourdes hartuko du (15:00). Joanekoan 15-10 nagusitu ziren Pirinioakoak. Baigorrik ere etxean jokatu du (15:00) eta pare-parean duen Albi izango du kontrario, eta joanekoan 28-13 irabazi arren behera egin du Albik. X